

TALAIAN

Altxor publikoa eta interes politikoak

Joan den astean bi gertaera erregistratu ziren diru publikoak bidegabe eralgitzearekin –zergadunen dirua– edo beren gestio txarrarekin erlazioatuak. Horrek erakusten du soilik argitara ateratzen direla etsai politikoa kaltetu daitekeenean. EAJK, bere Arabako diputatu nagusiaren bidez, PP salatu zuen diru publikoak bidegabe eralgitzeagatik foru erakunde horretan agintean egon zen bitartean: hiru diputatuk auto ofiziala erabiltzea euren familiekin oporretara joateko; eta Euskal Finantza Kontseiluari milioi bat euroko zerga-bilketa ezkutatzea –2006ko zor batetik eskuratua– modu horretan eragotziz diru-sarrera horren banaketan Gernikako Udala eta Eusko Jaurlaritza sartzea. Lakuako Gobernuak, bere aldetik, bozeramailearen bidez, Ibarretxeren aurreko Gobernu salatu zuen eta haren gainean jarri Guggenheim Museoak utzitako 7,5 milioi euroko “ondasun zuloa”. Hori estaltzeko, kapitala handitzea erabaki zuen aurreko Gobernuak; erabaki okerra, zeren eta Bizkaiko Aldundiak eta Lakuako Gobernuak zati igualetan egiten duten ekarpen normal eta aldizkakoa da hori.

Salaketa horiek egiten dira EAJ harrapaturik dagoenean, PP PSOE presionatzen ari baita zentsura mozio bat bultzatu eta EAJri Arabako Aldundia kentzeko. Botere forala galtzeko arrisku hori ez balu, EAJK azaleratuko al lituzke irregulartasun horiek? Zergatik orain, eta hain justu orain, salatzen du PP diru publikoak bidegabe eralgitzeagatik, eta ez Foru Aldundiaren gobernuan sartu zenean? Bestalde, Lakuako Gobernu bozeramaileak “irristada bat” egin zuen Bilboko museoko kapitala handitzeko arrazoiak azaltzerakoan, handitze hori ez baitzen “ondasun zuloa tapatzeko”, nahiz eta defizitak hortxe jarraitzen duen. Baina salaketa orain jaurti da, EAJ ordu baxuenean dagoenean. Interes politiko alderdikoi gehiegi!

Juan Mari Arregi

Euskalerria Irratia mututu?

HALA ADIERAZI DU Nafarroako Gobernuak, hil honen 30erako emisioak eten behar dituela. Espainiako Aireportuez eta Aireko Nabigazioaz arduratzen den AENA kexatu da. Noingo aireportuan, bere irrati frekuentzian interferentziak dituela esan du behin baino gehiagotan eta arazoa Erreniega mendian dauden irrati antenei egotzi zaie. Ez da frogatu zergatik dituen interferentziak AENAK, baina Nafarroako Gobernuak erabaki du Euskalerria Irratiak, Radio Euskadik, Euskadi Irratiak eta Radio Mariak emisioak etetea ekainaren 30a baino lehen. Emisioak eteten ez badituzte, irrati horiek itxi egingo dituztela esan du Gobernuak. Hala egingen badu Iruñerria euskarazko irratarik gabe geratuko litzateke.

BAHEA

Martxelo Otamendik *Berrian* esanak EITBko zuzendari nagusi berriak, Alberto Suriok, euskaraz ez dakiela-eta: “Egunen batean munduan dauden telebista guztien zuzendariak bilduko balira, gurea izango litzateke bakarretakoa ardurapeko produktua ulertuko ez lituzkeena. Eta anormaltasun horretatik, eta beste batzuetatik, irteteko ordua da. Inoiz normalak izatera iritsiko bagara. Ez zait oso zilegi iruditzen abertzaleei onartu zaiena, orain, sozialistei kritikatzeko. Baina bidezkoa da abertzaleei aurpegiratu zaiena sozialistei ere salatzea”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Sanjoanetako bertso saioa Tolosan

Eguna: ekainak 23, asteartea • **Ordua:** 19:30
Lekua: Zerkausia • **Sarrera** doan

Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Mikel Artola, Aitzol Barandiaran eta Jokin Sorozabal

Gai-jartzailea: Iker Iriarte



Antolatzailea: Euskara Batzordea
Babeslea: Bertsozale Elkarte



Terrorismoaren Aurkako Akordioa, Madril 2000ko abendua

BERRIKUNTZA bai, baina ez da ezustekorik izan Eduardo Puellesen hilketari emandako erantzunean. Berrikuntza mediatikoa da batez ere eta Patxi Lopez lehendakariaren ahalegin nagusia izan da lehengo agintarien eta oraingo arteko jokaera desberdina nabarmentzea. Ezker abertzaleko minoria bat ezik, gizartearen gehiengo nagusia ETArek aurka dagoela ikusarazi nahi izan zen Bilboko manifestazioarekin. Eta ez da gezurrik horretan, halakoa da errealitatea ere. Baina jarrera aldaketa egikaritu nahi izan da funtsean: bukatu da ETArek erantzuteko ohiko molde biguna, bukatu da euskal nazionalismoaren anbiguotasuna, bukatu da biktimak bigarren mailan jartzearena; eta hasi da terrorismoaren deslegitimazioaren garaia, terroristen lagunekin gogor jardutekoa, (euskal) nazionalismoaren anbiguotasuna erasotzeko uea...

Hori guztia da orain indarrez taularatu dena, EITB aldaketaren bandera gisa erabiliz. Hala egingo zutela iragarri zuten hauteskunde kanpaina eta eszenifikazio hori indarrez gizarteratzen ari da Lopez lehendakariaren gobernu, bai presoak direla eta, Ertzaintza, biktimak, hezkuntza planak, Iniziatiba Internazionalista... PSE-

EE eta PP ondo ari dira erabiltzen gobernu aldaketa, baina beren jarduerak are eta gehiago azpimarratzen du gobernu frontistaren izaera. Puellesen hilketari emandako erantzunean inon baino hobeto antzeman da.

Bilboko ikusita, Ajuria Eneko Itunaren itzala irudika zitekeen eta hedabide batzuk hala azpimarratu dute. Baina ez, Ajuria Eneko baino, hau 2000ko abenduan PSOEek eta PPK sinatutako Terrorismoaren Aurkako Akordioaren itzala da: ez da gatazka politikorik euskal gizartearen, ETA ez da horren ondorio eta, beraz, segurtasun indarrek ETA garaitzen dutenean amaituko da arazoaren alde itsusi eta gorrena. Eta euskal abertzaletasunak, behingoz, Espainian eroso bizitzea onartzen duenean, orduan arazo guztia bukatuko da. Atentatuaren berotan, aterki horrek halabeharrez bildu ditzake sentsibilitate politikoko gehienak Bilbon, baina hango ele nagusiek ezin dute ETArek aurkako diskurtso politikoa aterpetu. Euskal gizartearen zati bat ordezkari dezake horrek, gehiengoa ez.

BATEK daki zerk eraman dezakeen ETA armak uztera, batek daki balizko bloke soberanista izan daitekeen horretarako

lurreratze pista. Batek badaki, aldiz, herritarren %3-4ko sostengua duen erakunde armatuak jai duela. Ezker abertzaleko sektore zabal bat gogor ari da borroka armatua iraganen uztearen alde, eta bistan da borroka soilik politikora lotzen denean emaitza onak dituela: Iniziatiba Internazionalista azken adibidea. Baina egungo blokeo egoera asko luzatuz gero, gaitza da irudikatzea nola jarraitu ahal izango duten elkar bizitzen ideario politikoa beraren itzalean, borroka politikoa etorkizuna hain molde desberdinez ikusten duten sektoreak.

EA-K bukatu du azken hilabeteetako bidegurutzea. Baina basamortuko zeharkaldia ez da bukatu eta Pello Urizar idazkari nagusi berriak esku bete lan izango du alderdia dagoen egoeratik ateratzeko. Aliantza politikoetan asmatzeko ahaleginean du klabe nagusietakoa eta alde horretatik, ezkerreko abertzaleen bloke burujabearen aldeko apustuari sendo lotu zaio EA. Apustu ausarta da, zintzoa, epe motzeko onurari muzin egin eta erosotasunetik alde egiten duena. Politikan eskertzen den jarrera. Baina denak adierazten du hil ala biziko jokaldia izango dela EArentzat.

ZIO

- ZIENTZIA
- IRAKURLE
- ORORENTZAT
-
-
-

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bilako Foru Alandaren laguntzari esker urteko urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza utarturik jartzen dira adonoren esku.

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bilako Foru Alanda
Diputación Foral de Bizkaia